

Afrikatik Suediara tabu sexualak gainditzen

Harreman sailkaezinak, familiaren kontzeptua, generoa, maitasun erromantikoa... Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans 12. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdian, sari nagusiak lortu dituzten bi pelikulek lehen planora ekarri dituzte ezkutuan geratu ohi diren gaiak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

BERE BURUA heterosexualtzat duen Andreas gazteak gustuko du Sebastian androgino eta femeninoa. Pasioz biziko dute elkarren arteko harremana, baina mutila da Sebastian, bere alde femeninoa bezainbeste maite du bere alde maskulinoa, eta hori ez du horren gustuko Andreasek... Gizartearen arauci aurre egin nahi dien harreman batez eta generoetan sailkatzek ezartzen dituen mugez ari da Ester Martin zuzendari suediarren *Nånting måste gå sönder* (Zerbait apurtu beharra dago). “Biolentzia, pasioa, maitasuna eta poesia darion obra” delako, fikziozko luzerik onenaren garaikurra lortu du.

Pilar Monsell zuzendari espainiarrak berriz, aita du protagonista *África 815* lanean (dokumental luzemetrairik onenaren saria jaso du): aitak lau liburukitan du idatzia bere bizitza, eta halako batean, haren memoriak irakurtzera ausartu da alaba, memoriotan sakontzearekin batera aita itaunduz eta dokumentala errodatuz. Hala deskubritu du zuzendariak Sahararekiko aitak duen lilura, soldadutza egin zueneko oroitzapenei lotuta. “Aita homosexuala dela ez



da inoiz tabua izan. Madrildik Saharara soldadutza egitera joan eta gizonez inguratuta, hain mundu maskulinoa izan arren, paradoxikoki liberazio modukoa izan zen aitarentzat, bere orientazio sexuala libreago bizi zezakeela sentitu eta ulertu zuen han”.

Epaitu gabe entzuten ikastea

Dokumentalak iraun duen hiru urteko prozesuan, entzuten ikasi

Argazkian, *Nånting måste gå sönder* (Zerbait apurtu beharra dago). 28 herrialdetako 94 film eta hiru antzezlan eskaini ditu aurten Zinegoak jaialdiak.

duela dio zuzendariak, aita epaitu gabe entzuten, kontatzen zuen historia kontatzen zuela. “Gustuko ez ditugun bizitzako aferen onarpenaz” mintzo da filma. Finean, maitasun erromantikoa edo familia bat eraikitzekeo proiektua bezalako babesguneak apurtzen direnean, frustrazioa eta porrot sententzia nagusitzen direnean, maitasuna edota familia gisako kontzeptuen esanahiaz hausnartzeko eta benetako desioetan sakontzeko parada aproposa izan daiteke. “Elkarrekin bizitzeko, besteekin harremanak izateko moduarekin du zerikusia maitasunak, ez litzateke maitasuna bikote harremanera mugatu behar, hortik harago doan zerbait da”. ■



Liburu azoka

Mungian, otsailaren 20tik martxoaren 1era Matxin plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!